

Intxaurrondo, oraingoan euskaraz

[Salabardoa](#)



Ion Arretxe zena, eta bere liburu euskaratu berria.

Ez dakit urte batzuk barru zertan geratuko den “euskal gatazkaren errelatoa”, baina inoiz horrelakorik balego, iruditzen zait liburu hau —[Intxaurrondo. Intxaurraren hostopeko itzala](#),— haren parte ezinbestekoa izango litzatekeela. Bertan [Ion Arretxe Gutiérrez](#) biluztu egiten da, kontatzeko zelako izugarrikeriak bizi izan zituen [Intxaurrondoko kuartelean](#) eta Madrilen, Guardia Zibilaren eskuetan. Gizon tantaia omen zen, baina hemen ez du oztoporik bere izuak, zalantzak eta kontraesanak adierazteko, modu zintzoan.

Egilea ez da mugatzen kontatzera zer gertatu zitzaion 1985eko azaroaren 26ko goizaldean guardia zibilek bere etxean atxilotu eta Intxaurrondoko kuartelera eraman zutenetik, hamar egun geroago Madrilen libre kargurik gabe geratu bitartean. Horrekin batera, Arretxek ordura arteko bere bizitza kontatzen du: non bizi zen, zein familiatan, non ikasi zuen, non egiten zuen lan, zeintzuk ziren bere lagunak eta berak zer pentsatzen zuen. Kontakizun biak txirikordatu egiten dira, eta gertatutakoaren berri ez ezik, testuinguru hurbila ere erakusten dute.

Ion Arretxe atxilotu zuten egun berean Guardia Zibilak beste hiru lagun eraman zituen atxilo, tartean [Mikel Zabaltza](#), zeina atxilotu eta hogeitau egunera agertu baitzen hilda errekan, eskuburdinak ipinita zituela. Arretxek ez zuen ezagutzen Mikel Zabaltza, baina argi zuen berak ere antzeko patua jasan zezakeela gauzak apur bat okertu balitzaizkio. Izan ere, Arretxek zuhur jokatu arren —“Nik behin ere ez nuen ikusi Mikel Zabaltza; ez naiz, beraz, zer gertatu zen esateko bezain ausarta izango”—, ez da harritzekoa irakurleak paralelismoa egitea preso biek lehen egun haietan bizi izandakoaren artean, eta ondorioak ateratzea Mikel Zabaltzaren heriotzaz.

Erein argitaletxeak asmatu egin du liburu hau euskarara ekartzen, eta [Josu Zabaletak](#) asmatu egin du itzulpenarekin.

Intxaurrondo, oraingoan euskaraz